# gaurko filmak

| | | |
|---|---|---|
| **Un novio para dos hermanas** ★ | Zuz.: Luis Cesar Amadori. 103m. 1967. | **11:00 La2** |
| **Enemigo íntimo** ★ | Zuz.: Kenneth Fink. 87m. EEBB. 1998. | **17:00 T5** |
| **Rebelión apache** ★★ | Zuz.: R. G. Springsteen. 87m. 1966. | **18:20 ETB2** |
| **Mystery Men** ★ | Zuz.: Kinka Usher. 120m. 1998. | **20:35 C+(f)** |
| **Neuf mois** ★ | Zuz.: Patrick Braoude. 105m. Fran. 1994. | **20:50 TF1** |
| **La Cage aux folles 2** ★ | Zuz.: Edouard Molinaro. 100m. 1980. | **20:50 F2** |
| **El quinto elemento** ★ | Zuz.: Luc Besson. 120m. Fran. 1997. | **22:00 T5** |
| **U.S. Marshals** ★★ | Zuz.: Stuart Baird. 125m. EEBB. 1998. | **22:00 TVE1** |
| **Un amor por descubrir** ★ | Zuz.: Eugene Brady. 106m. 1998. | **22:05 ETB2** |
| **Resurrección** ★ | Zuz.: Stephen Gyllenhaal. 85m. 1999 | **23:15 La 2** |
| **Canicule** ★★★ | Zuz.: Yves Boisset. 100m. 1983. | **23:30 F3** |
| **Muerto el cuatro de julio** ★ | Zuz.: William Lusting. 85m. EEBB. 1995. | **23:35 A3** |
| **Solaris** ★★★ | Zuz.: Andrei Tarkovski. 140m. 1972. | **01:05 F2** |
| **La noche y el momento** ★ | Zuz.: Anna Maria Tato. 85m. 1994. | **01:45 ETB2** |
| **El infiltrado** ★ | Zuz.: Gene Mitchell. 98m. EEBB. 1996. | **03:55 TVE1** |
| **Yacimiento lunar** ★ | Zuz.: Philippe Mora. 86m. EEBB. 1996. | **04:30 T5** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

### UN NOVIO PARA DOS HERMANAS
**★ La 2 - 11:00**

Zuz.: Luis Cesar Amadori. Akt.: Pili, Mili. 103 min. Esp. 1967.

Amadori zuzendariak Pili eta Mili biki eroen luzimendurako sortu zuen komedia zaharkitu hau. Bi gazteok protagonizatutako abentura guztiak bezalakoa da. Bien arteko antz izugarriak eragindako gaizki ulertuak hartzen ditu abiapuntutzat, ohi bezala.

### ENEMIGO ÍNTIMO
**★ T5 - 17:00**

Zuz.: Kenneth Fink. Akt.: Mare Winningham, Bruce Davidson. 87 min. EEBB. 1998.

Mare Winningham antzezle ezagunak protagonizatzen du intrigazko drama tragiko ezatsegin hau. Bazkalondoan eman ohi dituzten telefilm kaskar horietako bat da; hala eta guztiz ere, hau pittin bat eramangarriagoa gertatzen da, aktore arrakastatsu batek antzeztua delako. Obsesio ilun baten kontakizun ezerosoa da: bikote baten bizitza lasaia erabat hondatu egingo da pertsona misteriotsu bat agertzen denean.

Ane Muñoz


Lee Marvin, *Canicule* filmeko irudi batean.

## Poliziakoen artean eredu

**CANICULE ★★★** **F3 - 23:30**

Zuz.: Yves Boisset, Akt.: Lee Marvin, Miou-Miou. 100 min. Fran, 1983.

Hegoaldean *Día de perros* izenburuarekin estreinatu zen *thriller* zoragarri hau gomendatuz hasi nahi dut gaurko filmen komentarioa. Izan ere, Frantziako zinemagintzan *polar* esaten zaion jenero poliziakoaren barnean eredu paregabea da, eszenaratze miresgarriz filmatutako istorio ezeroso bezain gozagarriaren kontakizun ederra, eta Lee Marvin handiak bikain antzeztua; Frantziako nekazarien artean topatuko duzue, gangster amerikar baten rolean. Yves Boisset zuzendariaren lan biribilena da, dudarik gabe.

pertsonaia nagusia; apatxe talde bati aurre egin beharko dio.

### REBELIÓN APACHE
**★★ ETB2 - 18:20**

Zuz.: R. G. Springsteen. Akt.: Rory Calhoun, Corinne Calvet. 87 min. 1966.

Egunero izaten dugu *western*-en bat ikusteko aukera, eta, gaur, R. G. Springsteenek zuzendutako abentura txiki baina entretenigarri hau emango dute. Rory Calhoun ezagunak antzezten du

### LA CAGE AUX FOLLES 2
**★ F2 - 20:50**

Zuz.: Edouard Molinaro. Akt.: Ugo Tognazzi, Michel Serrault. 100 min. 1980.

Alemaniak Danimarkarekin eta Estatu Batuekin egindako ekoizpen berezi hau Edouard Molinarok bi urte lehenago errealizatu zuen *La cage aux folles* (*Vicios pequeños*) arrakastatsuaren jarraipena da. Zuzendari berak egina bada ere, ezin dugu parekatu lehen atalarekin; izan ere, askoz eskasagoa da. Antzezlan arrakastatsu baten egokitzapen umoretsua da, eta bikotea osatzen duten gizonezko bi homosexual helduren ingurukoa da. Serrault, Tognazzi eta luxuzko beste hainbat aktore biltzen ditu.

### EL QUINTO ELEMENTO
**★ T5 - 22:00**

Zuz.: Luc Besson. Akt.: Bruce Willis, Ian Holmn. 120 m. Fran. 1997.

Diru asko erabili zuen Besson zinemagile frantziarrak lan hau filmatzeko, baina ez zuen oso film onik egitea lortu. Aktore ezagun eta garestiak bildu zituen zientzia fikziozko istorio honetarako, baina gidoiak eta azkeneko emaitzak huts egiten dute. 2050. urte inguruan, gure planetara deabrua iristean, bosgarren elementu *salbatzailearen* bila arituko dira. Zientzia fikzioa, efektu bereziak eta akzioa gustuko dituztenak, behintzat, ez dira aspertuko.

## ETB-1

**06:40:** Beakmanen mundua.
**07:00:** Betimu.
**07:30:** Betizu. Hirukiak II. Harriketarrak. Autobus magikoa.
**08:55:** Sylvan.
**09:20:** Euskal Herritik.
**09:45:** Harraparien gorabeherak. Dokumentala.
**10:40:** Sorginen laratza.
**11:35:** Bidaide. Bizitzeko hil beharra.
**12:25:** Elkartasunaren bideak. Nikaragua: Lurraren alde borrokan.
**12:55:** Iparraldearen orena.
**13:05:** Parker Lewisek ez du sekula galtzen.
**13:30:** Gaur egun.
**14:05:** Otorduan Karlos Argiñano.
**14:30:** Bertatik bertara.
**14:55:** Hasiberriak.
**15:25:** Goenkale.
**16:05:** Bidaide. Bizitzeko hil beharra.
**16:55:** Mike Hammer.
**17:45:** E-klipse@.
**18:15:** Otorduan Karlos Argiñano.
**18:40:** Betizu.
**20:28:** Gaur egun.
**21:10:** Bertatik bertara.
**21:40:** Goenkale.
**22:20:** Hasiberriak.
**22:55:** Sorginen laratza.
**00:00:** Lucy Sullivanen ezkontza.
**00:25:** Zer egin gogaikarritxoa izateko.
**00:30:** Gagnora gagbe.
**01:00:** Bakarrik.
**03:00:** Bertatik bertara.
**03:20:** Zaharrak berri.
**03:45:** Algara.
**04:15:** Ikusgela.
**05:10:** Herri musika sorta.
**05:30:** Ander eta konpainia.
**05:45:** E-klipse@.
**06:10:** Zuzia.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
**07:30:** Telediario matinal. Albistegia
**09:00:** Los desayunos de TVE. Gonbidatua: Trinidad Jimenez.
**09:50:** Maria Emilia. Telesaila.
**12:00:** Saber vivir.
**13:00:** Asi son las cosas. Magazina.
**14:00:** Informativo Territorial. Albistegia.
**14:30:** Corazón de Primavera. Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa.
**15:00:** Telediario 1 Albistegia.
**16:00:** El tiempo.
**16:05:** El Secreto. Telesaila.
**16:45:** La revancha. Telenobela.
**18:45:** El precio justo. Lehiaketa.
**20:00:** Gente. Pepa bueno eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako saioa.
**21:00:** Telediario 2. Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** Zinema.
**U.S. Marshals**
Zuz: Stuart Baird. Akt: Tommy Lee Jones. 1998.
**00:40:** Esta es mi historia. Magazina.
**02:10:** Telediario 3. Albistegia
**02:40:** Reyes y rey.
**03:30:** Corazón de Primavera.
**03:55:** Zinema.
**El infiltrado**
Zuz: Gene Mitchell. Akt: David Amos. 1996.
**05:05:** Gente.

## ETB-2

**07:30:** Del pais de los vascos.
**07:50:** Palabra de ley.
**08:25:** Cafe co-media. Radio noticias. Boston. Soltero.
**09:30:** El punto. Gonbidatua: Mari Carmen Garmendia.
**10:00:** Forum. Gonbidatuak: Jabier Elorriaga eta Josu Rekalde.
**10:35:** Clasicos en serie.
**12:25:** La cocina de Pedro Subijana.
**12:40:** La ley de la bahia.
**13:35:** Euskadi directo.
**13:35:** Navarra directo. (Nafarroan).
**14:05:** El principe de Bel Air. Telesaila.
**14:28:** Teleberri.
**15:20:** Lo que faltaba.
**18:35:** Zinema:
**Rebelion Apache**
Zuz.: R.G. Springsteen. 1966.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri.
**21:45:** La noche de...
22:05: **Un amor por descubrir**
Zuz.: Eugene Brady. 1998.
**00:15:** Pasados de vueltas
**01:45:** Zinema.
**La noche y el momento**
Zuz: Anna Maria Tato. 1994.
**03:30:** Medias de seda.
**04:15:** Lo que faltaba.
**06:40:** Forum.
**07:10:** Amaiera.

## A3

**07:05:** Sailormoon.
**07:30:** Club Megatrix. El increible Hulk. Ace aventura. Gadget boy. Marsupilami.
**09:30:** El primer cafe.
**10:30:** Como la vida.
**13:25:** Menudo es mi padre. Telesaila.
**13:35:** Noticias: Informativo territorial.
**14:00:** Sabrina. Telesaila.
**14:30:** Los Simpson. Marrazki bizidunak.
**15:00:** Noticias. Albistegia.
**16:00:** Sabor a ti.
**19:15:** Ahora. Cristina Saavedrak aurkeztutako magazina.
**20:00:** Pasa Palabra. Lehiaketa.
**21:00:** Noticias 2. Albistegia
**22:00:** Compañeros. Telesaila.
**23:35:** Zinema.
**Muerto el cuatro de julio**
Zuz: William Lusting. Akt: David Shark. 1995.
**01:40:** Antena 3. Noticias. Albistegia.
**02:25:** Sentinel. Telesaila.
**03:15:** Televenta.
**06:00:** Repeticion programas.

# irratia

FM:
Segura Irratia 89.2
Euskalerria Irratia 91.4
Irulegiko Irratia 91.8
Arrate Irratia 93.6
Euskadi Irratia 94.4/95.2
Xiberoko Boza 95.5
Bilbo Hiria 96.0
Tas-tas Irratia 97.00
Herri Irratia 99.8
France Bleu Pays Basque 101.3
Bizkaia Irratia 102.5
Euskadi Gaztea 103.5
Gure Irratia 106.6
Txolarre Irratia 107.5
Xorroxin Irratia 107.5
Hala Bedi 107.7

OM:
1224 Herri Irratia

**TXOLARRE IRRATIA.** 11:15ean, *Bota piñue* atalean, Abiadura Handiko Trenak nekazaritzan eragin ditzakeen kalteak aztertuko dituzte. 12:00etan, albisteen txanda izango da. 12:30ean, Batzuk musika taldeko kideak gonbidatuko dituzte; tolosarrek disko bat argitaratu berri dute. 13:00etan, *Hitz bila* lehiaketa iritsiko da. Eta 13:30etik 14:00etara, disko eskainien tartea.

**GURE IRRATIA.** Goizeko 08:15ean, Hendaiako Sagarno Egunari buruz hitz eginen dute. Albistegietan, bestalde, gaur-gaurko zenbait gaiez mintzatuko dira: Andoni Arrizabalagaren ehorzketa izango dute hizpide, Hazparnen udal hauteskundeak errepikatuko diren aztertuko dute, eta Baionan eginen duten komertzio elektronikoari buruzko jardunaldiaren berri emanen dute. 09:30ean, ingurumenari buruzko *Gure bazterrak* irratsaioa helduko da. Eta, asteartero bezala, 11:00etatik 12:00etara Hazparnetik eginen dute emankizuna, zuzenean. Francis Jamme idazlearen inguruan arituko dira.

**EUSKADI GAZTEA.** Dani Arizalak eta Maria Gomezek *Hi bizi haiz, hi* irratsaioa aurkeztuko dute, 19:00etan.